

## Zumaiako urola itsas adar piraguismo kluba.

### Piragüismo

Itxas Kiroldegia

P. Etxezarreta, 27

20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Tel: 943 86 07 76 Fax 943 14 30 88

[www.itxasgain.com](http://www.itxasgain.com)

[itxasgain1968@gmail.com](mailto:itxasgain1968@gmail.com)



Jaun agurgarriak,

Datorren Uztailaren 19an, piraguismoko 50. Urola ibaiaren igoera-jaitziera txapelketa ospatu nahi da, zein azken urteotan bezala, Euskadiko kopako puntuagarria izango den.

#### ANTOLATZAILEAK:

- Euskadiko piraguismo federakuntza
- Zumaiako udala
- Zumaiako urola itsas-adar piraguismo kluba

#### EGUNA:

- 2026ko uztailaren 19an

#### ORDUTEGIA:

- 09:30 izen emateen baieztatzea
- 10:00 ordezkarien bilera
- 11:00 irteera
- 12:30 aurreikusitako amaiera
- 13:30 garaikurren banaketa

#### LEKUA:

- Itsas kiroldegia, Pantxita Etxezarreta 27. Uretaratzea, itsas kiroldegiko ontziraletan egingo da.

#### IBILBIDEA:

Txapelketaren irteera Santiago hondartzatik egingo da, lehiakideak hondarretan egongo dira eta epaileen irteera ematean lasterketa piraguak hartu eta uretaratuko dira.

Bertatik urola ibaian gora abiatuko dira, Beduko Korta poligonoko zubiko matxoiari ziboga eman eta ondoren, berriro ere Urola itsas adarrean kokatutako builari ziboga eman eta Itsas Kiroldegira, non, helmuga egongo den.

#### BABESA:

Gurutze gorriko anbulantzia eskatuko da gerta daitezkeen osasun ezbeharrak artatzeko. Bestalde, Zumaiako arraun elkarteari ere zodiac bat eskatuko zaio uretan gerta daitezkeen arazoak konpontzeko.

#### LIMITE GEOGRAFIKOAK:

Urola ibaiaren itsas adarra, Santiago hondartzan hasiko da txapelketa, eta ibaiaren zabalera osoa hartuko du Jose Mari Korta industriagunera bitartean. Lehorrean, ibilgailuak estazioko industriagunean utziko dira.

#### PARTAIDE KOPURUA:

- Pandemia hurreko partaidetza antzekoa espero da, 140 partaide gutxi gora bera.
- Piraguak K-1, K-2, C-1 eta C-2 modalitatekoak izango dira, eta kadeteetatik aurrerako mailak hartuko dute parte.

### EGURALDIAREN EGOERA LIMITEA:

- Txapelketa hasi baino ordubete lehenago, itsasoaren egoera aztertuko da. Santiago hondartzan olatu handiak izan ezker, txapelketari irteera, ibaiaren barnealdean, Santiago hondartzako ontzira leku paretik emango zaio.
- Bestalde eguraldiगतिक arrisku abisuren bat emana badago, txapelketa bertan behera utziko da.

### NABIGAZIOA ETETEA:

Txapelketaren irteera baino 10 minutu lehenagotik, azkeneko partaideek kirol portuko sarreatik pasa arte, portuko sarrera / irteera erregulatuko da.

Gutxi gora bera 20 – 30 minutuko etena aurreikusten da.

### SEGURTASUN KOORDINATZAILEA:

- Izena: Eñaut Aizpurua Aranzadi
- Helbidea: San Jose 37 1ª
- Nazionalitatea: Espainiarra
- Telefonoa: 669409521

